



Laudio

Hezkuntzarekin konpromezua hartuta

eskolako agenda 2/a

Zuk parte har dezakezu



① Zer da?

Eskolako Agenda 21 hezkuntza-komunitateak hartutako konpromisoa da, ikastetxeko eta bere inguruko ingurumenaren kalitatearen eta jasangarritasunaren alde lan egiteko.

Konpromiso horrek berekin dakar ingurunea ezagutzeko interesa izatea, bidegabe dena aldatu nahi izatea eta guztion orainaren eta etorkizunaren alde lan egiteko gogoia izan eta konpromisoa hartzea. Eskolako Agenda 21ek ikasleei beren ingurumen hurbilaren arazoa aztertu eta ulertzea ahalbidetzen die eta hiritar gisa bidezkoagoa eta ekologikoki jasangarriagoa izango den gizarte baten alde aritzeko prestatzen ditu. Oinarrizko hiru osagai ditu: ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren jasangarritasuna, curriculumaren berrikuntza eta komunitatearen parte-hartzea.

② Zein dira helburuak?

Eskolako Agenda 21en helburua da "gizakiaren-gizartearen-ingurumenaren" arteko harremanak hobetu eta bizi-kalitatearen eta ingurumen-kalitatearen arteko oreka dinamikoa sortu edo eusteko bakarka edo taldean esku hartu nahi duten hiritar aditu eta aduratsuak lortzea.



③ Zein gai lantzen ditu?

Ikastetxeko eta ingurumen-kudeaketari dagozkion oinarrizko gaiak aztertu, berrikusi eta hobetzen dira Eskolako Agenda 21ean. Ikastetxearen eta udalerrriaren ingurumen-kudeaketari dagozkion alderdiak ezagutzeak ikasleek beren ingurunearen eta ikastetxearen kudeaketan modu ardurasuan aritu eta parte hartu ahal izateko balio izan behar du. Kontsumoaren energia, ura eta beste errekurtsu batzuk; mobilidadea, biodibertsitatea eta...puntu hauetako edozein izan daiteke Eskolako Agenda 21aren diagnostiko, plangintza eta ekintzarako gai, baina banan-banan azter-tzen badira ere, Eskolako agenda 21aren oinarrizko hiru zutabeei erantzungo dieten aspektuak landu behar dira gutxienez: ikastetxearen edo ingurunearen kudeaketa jasangarria, ingurumen-hezkuntza eta Tokiko Agenda 21eko foroaren bitartez ingurunearen parte hartzea.

④ Nork eta nola parte hartzen du?

Irakasleek, ikasleek, gurasoek, administratzaileek, , eta, azken batean, ikastetxea errealitateetik hurbilago eta komunitatean integratuago dagoen gune parte-hartzaile, plural, kritikoa eta osasuntsu bilakatu nahi duten guztiek parte har dezakete Eskolako Agenda 21en eraketan.

Parte hartzeko ikastetxeetan ingurumen-batzordeak eta parte-hartze foroak eratuko dira, non ikasleek ordezkariak beraien proiektu eskolarren ondorioak aurkeztuko dituzten, horrela kontuan hartu daitezkeen udalerriko garapen jasangarriaren bidean. Eskolako Agenda 21 Tokiko Agenda 21, LAUDIO XXI-en parte da.



⑤ Nola antolatzen da?

Udalerriri bateko eskolek proiektua gai berean egiten dute. Eskolako Agenda 21ko batzordeek zentruetan proiektuak dinamizatzen dituzte eta ordezkariak eskolako parte-hartze foroan parte hartuko dute.

Eskolako Agenda 21 gizarte jasangarri eta bidezko bat eraikitzen lagundu nahi duen taldeko hezkuntza-proiektu bat da, eta horretarako praktika demokratikoez eta helburu horiekiko koherenteak diren antolamendu-formez baliatzen da.

⑥ Nola ebaluatzen da?

Guztionean adierazle onenak erabakitzen dira, eskola-komunitateak ikastetxeko gaitan duen parte-hartzearen, kontsumismoari ezarritako balaztaren, ingurumen- inpaktuen murrizketaren, oinarrizko komunikazio-gaitasunen, biodibertsitatearen, jasangarritasunaren eta kohesio sozialaren eta abarren maila eta kalitatea neurtzeko.

Adierazleak non kokatuta gauden, zein norabide hartu dugun eta gure helburuetatik hurbil edo urrun gauden ulertzen laguntzen diguten aldagaien irudikapen neurgarriak dira.



Eskolaren unea

Eskolak premia sozial eta ingurugiroari buruzkoak erantzun nahi baditu ingurunearekiko irekiagoa azaldu behar da eta Laudioko ingurumenaren hobekuntzarako ezagutzak, gaitasunak zein konpromezu baloreak bultzatu behar ditu.

Eskolako foroa



Udalerriko foroa
Tokiko Agenda 21



Ikastetxeen parte hartzeak Laudioko Garapen Jasangarria lortzeko aukera egokia suposatzen du.

